



INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

IBILGAILUAK

Argitalpen-data: 2020

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenearan eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

IBILGAILUEN EROSKETA BERDEA

Jakina denez, garraiobide hori erabiltzeak ingurumen-inpaktu negatibo handiak sortzen ditu: erregai fosil asko kontsumitzen dituzte ibilgailuek, berotegi-efektuko gasak (nagusiki, CO₂-a) eta beste konposatu kutsatzaile batzuk isurtzen dituzte, eta zarata sortzen dute.

Kontratazio eta erosketaren bidez ekarpen positiboa egin dezakegu eta inpaktu horiek gutxitzen ahalegindu gaitezke, ibilgailuak erosi, erabili eta amaierako kudeaketa ingurumen irizpideak sartuz eta informazio honen berri hornitzaileei emanez, ibilgailuen banaketa deszentralizatuak hedapen hori zaildu egiten baitu). Ikus dezagun nola.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Labur esanda hauek dira ideia nagusiak:

Zenbait kontzeptu nagusi

Merkatuan dauden ibilgailu-motak

Gaur egun, ibilgailu-mota eta -eskaintza ugari dago merkatuan. Behar ditugun prestazioen, teknologia-aurrerapenaren eta gasolindegikopuruaren arabera, aukera hauek ditugu: ohiko ibilgailuak (gasolina edo gasolio), erregai alternatiboak (bioerregaiak, gas naturala eta/edo PGL) eta abar bidezkoak), hibrido entxufagarriak edo ez eta ibilgailu elektrikoak.

Erosketa eta kontratazio berdearen bidez ibilgailuen ingurumen-inpaktuak gutxitzeko, zer estrategia jarraitu behar dugu?

1. Flota dibertsifikatzea ordezko energia-iturrien kontsumoa handitzeko (hala nola elektrizitatea, gas naturala nahiz bioerregaiak).
2. Energia gutxi kontsumitzen duten, CO₂ eta beste errekuntza-gas batzuk gutxi isurtzen dituzten eta zarata gutxi ateratzen duten ibilgailuak erosi eta/edo alokatu behar ditugu.
3. Sustatzen diren ibilgailuak erabili bitartean kontsumoa murrizten laguntzen duten soluzioekin ekipatuta egotea -hala nola gurpilen presio-adierazle automatikoak, martxa-aldagailuaren adierazleak, energia-kontsumoaren bistaratzailerak, Start-Stop sistemak nahiz abiaduraren kontrol-sistemak (bidaia-kontrolaren estilokoa edo antzekoa)-.
4. Neurri paraleloak aplikatu behar dira, ibilgailuek erregai gutxiago kontsumi dezaten; esate baterako, biskositate gutxiko lubrifikatzaileak erabiltzea, errodadurarentzako eragozpen txikiko eta zarata urriko pneumatikoak erabiltzea edo gidatze eraginkorraren gaineko prestakuntza jasotzea.
5. Automobilaren sektore osagarrietan berreskuratzea sustatzen duten neurriak aplikatu behar dira; esate baterako, lubrifikatzaileak birsortzea edo pneumatikoak birkautxuztatzea.

INGURUMEN ZIURTAGIRIAK, zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- **Informazio-etiketak:** 1999/94/EE Europako Direktibak agintzen duenez, salgai dauden ibilgailu berri guztiek ibilgailuaren kontsumoari eta kilometroko sortzen duten CO₂-emisioei buruzko informazio-etiketa eduki behar dute, nahitaez. Horren ondorioz, bi osagai dituen etiketatze-sistema ezarri da:

Zenbait kontzeptu nagusi
Informazio-etiketak

Nahitaezko etiketa. Modelo bakoitzak — salmentatokian ondo ikusteko moduan dela— hauek adierazi behar ditu: kontsumo-datuak eta CO₂-emisioenak. Fabrikatzaileak eman behar ditu datu horiek.

Borondatezko etiketa. Konparaziozko balorazio-sistema haztatua da. Energia eraginkortasunaren arabera sailkatzen ditu ibilgailu guztiak, A-tik (eraginkorrena) G-ra (eraginkortasun gutxiena duena) bitarteko eskala batean.

En todos los puntos de venta puede obtenerse gratuitamente una guía sobre el consumo de combustible y las emisiones de CO₂ en la que figuran los datos de todos los modelos de automóviles de turismo nuevos.

Marca/modelo:

Tipo de carburante:

CONSUMO OFICIAL (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)	
Tipo de conducción	l/100 km
En ciudad	
En carretera	
Media ponderada	

EMISIONES ESPECÍFICAS OFICIALES DE CO₂
(SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)

g/km

El consumo de combustible y las emisiones de CO₂ no sólo dependen del rendimiento del vehículo; también influyen el comportamiento al volante y otros factores no técnicos. El CO₂ es el principal gas de efecto invernadero responsable del calentamiento del planeta.



Energia-sailkapenari buruzko etiketa nahitaezkoa ez denez, eta fabrikatzaile edo kontzesionario askok ez dutenez, urtero merkatuan jarri diren ibilgailu berri guztiei buruz IDAEk argitaratzen duen gida kontsultatu daiteke <http://coches.idae.es/> helbidean.

- Bestalde, espainiar estatuko Trafiko Zuzendaritza Nagusiak ibilgailuen sailkapen bat ezarri du, kutsatzeko ahalmenaren arabera. Haren helburua gutxien kutsatzen duten ibilgailuen diskriminazio positiborako politikak erraztea da. Hau da sailkapena, DGTren Ibilgailu Erregistroko sailkapenaren arabera:



Bateriako ibilgailu elektrikoak (BEV); autonomia hedatuko elektrikoak (REEV); gutxienez 40 kilometroko autonomia duten hibrido ahokagarria (PHEV+), edo erregai-pilako ibilgailuak.



40 kilometrotik beherako autonomiako Ibilgailu hibrido ahokagarriak (PHEV-); ibilgailu hibrido ez-ahokagarriak (HEV), gas natural konprimituz (GNC), gas natural likidotuz (GNL) nahiz petrolio-gas likidotuz (GLP) propultsatuak. Nolanahi ere, C etiketaren irizpideak bete beharko



Euro 4, 5 eta 6 gasolinazko ibilgailuak edo Euro 6 diezelezko ibilgailuak.




Euro 3 gasolinazko ibilgailuak edo Euro 4 eta 5 diezelezko ibilgailuak.

Zenbait kontzeptu nagusi

dituzte.

- Pneumatikoen energia-eraginkortasuna adierazteko etiketa:** N^o1222/2009 Erregelamenduaren arabera hornitzaileek eta inportatzaileek 2012ko uztailak 1etik aurrera ekoiztutako pneumatikoen ziurtatu beharko dute etiketa egokia itsatsita edukiko dutela errodadura-bandan. Bertan xehetasun hauek adierazita egongo dira: eraginkortasun mota, erregai-kontsumoari dagokionez, kanpoko errodadura-zarataren batz besteko balioa; eta egokia denean, gainazal bustian duen itsaspen mota.
- Enpresen ziurtagiriak:** mantentze-lanetarako, enpresa batzuek Ingurumena Kudeatzeko Sistemak dituzte (EMAS, ISO 14001...) lantegietan. Legea eta zerbitzua ematean ingurumen jardunbide onak betetzen direla bermatzen dute ziurtagiri horiek. Beraz, mantentze-lanak egiteko lantegiak hautatzean, ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistemaren bat izatea lehenetsi behar da.



EROSKETA EDO ALOKAIKUTIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Ibilgailuak ingurumen-irizpideekin erosteko eta/edo kontratatzean, zenbait unetan eragin eta erabakitze ahalmena du, erosle eta kontsumitzaile garen aldetik. Zer unetan? Nola izan iraukor?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

1. Urratsa. Beharrak

Ibilgailu berri bat erosi edo alokatu aurretik, benetako beharrak kuantifikatu behar dira. Horrek esan nahi du:

- Ibilgailu berria behar dugun egiaztatu behar dugula, eta, ahal dela, beharra gutxitzen eta beste erabilera batzuekin bateratzen saiatu behar dela (ibilgailu bera pertsona edo sail batek baino gehiagok erabiltzea eta abar).
- Zertarako erabili behar den eta zer nolako prestazioak eduki behar dituen zehaztu egin behar dela, ibilgailu berriaren potentzia, tamaina eta motor-mota hautatzeko. Potentzia handiko ibilgailu bat badugu eta ematen zaion erabilerarako potentzia gutxiago nahikoa bada, behar baino gehiago kontsumituko du. Motor-mota, berriz, beharrezko prestazioen eta erregaiz hornitzeko leku-kopuruaren arabera dira.



ZER NOLAKO IBILGAILUA EROSI EDO KONTRATATU?

2. Urratsa. Ibilgailua eskuratzea

Ibilgailua erosteko edo alokatzeko beharra dugula erabaki eta haren prestazioak zehaztu ondoren, zenbait ingurumen-irizpide betetzea eskatu behar dugu; hala nola:

IBILGAILUA erosteko funtsezko ingurumen-irizpideak:

- **CO₂-kontsumoa eta -isurpenak.** Ibilgailuaren oinarrizko parametroak zehaztu ondoren (merkataritza-segmentua, zer motor nahi den, potentzia-tartea eta abar), energiaren aldetik eraginkorra dena eta CO₂-isurpen gutxien eragiten dituen hautatu behar da. Horretarako, IDA Eren "Autoen datu-basea" kontsultatu daiteke (<http://coches.idae.es/>). A edo B¹ gisara sailkatuta dauden autoak hautatu behar dira, eta, horietatik, CO₂ gutxien isurtzen dutenak.
 - 40 km edo gehiagoko autonomia elektrikoa duten ibilgailu elektriko huts, autonomia zabalduko edo hibrido entxufagarrien kasuan: arduradunak honako hau egin beharko du: behar den autonomia erreala behar bezala ebaluatu, gutxieneko bat eskatuz eta autonomia handiagoak balioetsiz; karga azkar edo erdi-azkarrean kargatzeko aukera eman behar duen zehaztu (karga-potentzia maximoa); eta bateriak % 70etik gorako karga-ahalmena mantentzeko bermea izatea eskatu, gutxienez 160.000 km-ko edo hortik gorako karga-ahalmena mantentzeko (EN 62660 arauaren arabera).

Ibilgailuaren zuzeneko erosketarako beste ingurumen-irizpide batzuk:

- **Bioerregaiak:** baloratuko da ibilgailuek bioerregaiak % 7tik gorako portzentajeetan erabiltzea ahalbidetzea.
- **Bestelako ekipamenduak:** baloratuko da ibilgailuak erabili bitartean kontsumoak murrizteko sistemekin ekipatuta egotea (hala nola gidatzearen araberrako energia-kontsumoaren bistaratzailak, martxa-aldagailuaren adierazleak, gurpilen presioa monitorizatzeko sistema automatikoak edo bidaia-kontrolaren estiloko edo antzeko abiaduraren kontrol-sistemak).

Irizpide horietatik guztietatik, garrantzitsuenak edo betetzeko errazenenak jotzen ditugunak exijituko edo balioztatuko ditugu gure erosketa edo kontratazioan.

Administrazioak prozedura ireki edo negoziatu bidez ibilgailuak erosi edo kontratatu behar baditu, Ihobek argitaratutako Kontratazioko eta Erosketa Publiko Berdearen Eskuliburu praktikoan (www.ihobe.eus), klausula-agirietan sartu beharreko zehaztapen teknikoak eta eskakizun-mailetarako zehaztapenak jaso dira. Horretaz gain, esleitzeko irizpide-proposamena, eskaintza teknikoak izan behar duen edukiarena eta kontratua nola gauzatu azaltzen duen proposamena ere jaso dira.

¹ Gerta daiteke, ibilgailu-kategoriaren arabera, ibilgailurik gehienek kategoria horiek baino txikiagoak izatea (energia eraginkortasunaren araberrako sailkapenarekiko). Lur orotako ibilgailuak edo furgoneta txikiak sartzen dira hor, esate baterako. Lehenengoek C-G sailkapena izaten dute, eta, bigarrenek, D-G sailkapena. Horregatik, bilaketa egin eta dagokion sailkapena duten ibilgailuen zerrenda lortu ondoren, baloratu egingo da energia eraginkortasuneko adierazitako kategoria baino txikiagoa duen beste bat ezar daitekeen, gutxieneko eskakizun gisara.

NOLA BURUTU MANTENTZE-LANAK ERA EGOKIAN?

3. Urratsa. Ibilgailuen mantentze-lanak

Irizpide hauek erabili behar dira kanpoko lantegietan egin beharreko mantentze-lanetako kontratuetan, produktuak erosteko (geure tailerra badugu) eta leasing-/renting kontratuetan (ibilgailuei buruzko irizpideen gehigarri):

MANTENTZE-LANETAKO LANTEGIETARAKO ingurumen irizpideak:

- Ingurumen-kudeaketa: mantentze-lanak egin behar diren lantegiek (bai kanpokoek bai leasing-/renting enpresetakoek) Ingurumen Kudeaketako Sistema ezarrita eta ziurtatua edukitzea balioetsi behar da (EMAS, ISO 14001 edo antzekoren bat).

PNEUMATIKOETARAKO ingurumen-irizpideak:

Gurpil hauek erabiltzean lehenetsi behar da:

- Eraginkortasun enegetikoari dagokionez sailkapen hobea izatea («B» o «A»).
- Zarata minimoen emisioa minimoa «ertaina» edo hobea eta txikiagoa dB(A).
- Kilometrotan adierazitako pneumatikoen bizitza baliagarria handiagoa.
- Pneumatiko birkautxuztatuak izan daitezela

MOTOR-OLIO LUBRIFIKATZAILEETARAKO ingurumen-irizpideak:

- Biskositate gutxiko olioak erabiltzea eskatu behar da (0W30 eta 5W30 sailkapena dutenak, SAERen —Society of Automotive Engineers— sailkapen sistemaren arabera). Horiek aurrezten dute gehien kontsumoa, eta sortzen dute emisio gutxien.
- Horretaz gain, olioen jatorriari dagokienez, birsortutako olio oinarriak dituzten olio lubrifikatzaileen erabilera balioestea gomendatzen da, kalitate tekniko berdina izanik ingurumenaren aldetik hobekak direlako.
- Azkenik, balio-bizitza luzeagoa duten (kilometrotan neurtua) olio lubrifikatzaileak hautatu behar ditugu.

MANTENTZE-lanetarako ingurumen-irizpideak

- *Hondakinak*: motorretako lubrifikatzaileen eta aldatutako pneumatikoen hondakinen kudeaketa baimendutako kudeatzaileen bidez egin behar da, eta hondakin horiek birsortzen (lubrifikatzaileak, adibidez) eta birziklatzen edo birkautxuztatzen (pneumatiko berriak edo kautxuzko produktuak fabrikatzeko) dituztenak lehenetsi behar dira. Horretarako, baimendutako kudeatzaileen eta bildutako produktuen erabilera azaltzen duen zerrenda aurkeztu behar du enpresak.

Lehendik aipatu dugunez, administrazioak prozedura ireki edo negoziatu bidez ibilgailuren bat erosi edo kontratatu nahi badu, klausula-agiriak Ihobek argitaratutako eskuliburuan ditu zehaztuak.

NOLA EGIN ERABILERA ERAGINKORRAGOA?

4. Urratsa. Ibilgailuaren erabilera

Ibilgailuak erostean eta haien mantentze-lanak egitean ingurumen-irizpideak sartuz gutxiago kontsumitzeaz gain, honela ere egin dezakegu ekarpenik:

- *Erabilera*: ekogidatzearen edo gidatze eraginkorraren gaineko prestakuntza jaso eta aplikatuz.

AZKENEKO URRATSA: NOLA KUDEATU ERABILTZEN EZ DIREN IBILGAILUAK ETA HORIEN HONDAKINAK?

4. Urratsa. Ibilgailuaren erabilera

Ibilgailuek nahiko bizi luzea dute, baina horien balio-bizitza gainditzen denean, behar bezala kudeatu behar dira. Horretarako, bi neurri har ditzakegu:

- **Ibilgailua oso egoera kaskarrean edo hondatuta badago, eta konponbide onik ez badu:**
 - ⇒ Legeak ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio: baja eman, eta autoak desegiteko toki baimendu batera eramatea, deskontaminatu (likido eta elementu toxikoak ateratzeko) eta ahalik eta material gehiena berreskura dezaten, gero birziklatzeko.
- **Ibilgailua oraindik ere egoera onean badago, baina ordezkatzera erabaki bada:**
 - ⇒ Irabazi asmorik gabeko edo garapen bidean dauden herrialdeetan jarduten duen elkarteren bati utzi edo ematea ideia ona izan liteke.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Lotura interesgarriak

- Informazio hauetan sakondu beharrean, kontsultatu Ihoberen web orrian, erosketa publiko berdearen atalean, <http://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>, edo ihoberekin kontaktuan jarri:
 - ⇒ Tel.: 94 423 07 43
 - ⇒ Mail: compra.publica@ihobe.eus